



OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN 2025EKO UZTAILAREN 30AREN SAIORIK GABEKO EZOHIKO BILERAREN AKTA

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Administrazio Kontseilua eratu da, modalitate ez-presentzialean eta saiorik gabe, 2025eko uztailaren 30ean. Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 17.5 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrituz, kontseilu honen ondorioetarako, ulertzen da akta honetan jasotako erabakiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren egoitza nagusian hartu direla (Araba 45, Vitoria-Gasteiz), hura baita erakundearen egoitza.

Aurrekoa ezarri ondoren, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluko presidenteak deituta, honako kide hauek bildu dira: **Alberto Martínez Ruiz jauna**, Osasuneko sailburua eta presidentea; **José Enrique Corchón Álvarez jauna**, Eusko Jaurlaritzaren Finantza eta Aurrekontuetako sailburuordea; eta **Josu Iñaki Garay Ibáñez de Elejalde jauna**, Aurrekontuetako zuzendaria. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Estatutu Sozialen 8.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, Administrazio Kontseilu honetan parte hartu du, kontseiluburuaren baimenarekin, ente publikoko ente publikoko Aholkularitza Juridikoko zuzendariordea, **Maiteder Mielgo Rubio andrea** (idazkari gisa).

Kontseiluburuak quorum nahikoa dagoela egiaztatu du, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak – Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituenak– eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezarritakoaren arabera, eta, horrenbestez, bertaratuek bozkatu egin dute gai-zerrendaren puntu bakarrari dagokionez, alde zuzenetik jakinarazitakoa.

GAI-ZERRENTA

LEHENENGOA. - Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabakia, zeinaren bidez ukatzen baita gora jotzeko errekurtsoren bidez Osakidetzako

zuzendari nagusiaren ebazpenaren aurka aurkeztutako etendura. Ebazpen horren bidez, 2020-2021-2022ko enplegu publikoaren eskaintzan administrari laguntzaileen kategorian hautatutako izangaien behin betiko zerrenda eta destinoen esleipena argitaratu ziren.

Eskatutako etendura ukatzearen aldeko hiru boto eman dira, errekurtsogileak ez dituelako behar bezala egiaztatu Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako inguruabarrak, zeinek aurkaratutako egintzaren betearazpena eteteko ahalmena ematen baitute. Zehazki:

- 1) Betearazpenak kalte erreparaezinak edo erreparagaitzak ekartzea.
- 2) Aurkaratzearen oinarria lege honen 47.1 artikuluan erabateko deuseztasunerako aurreikusitako arrazoietakoren bat izatea.

Era berean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legearen 117. artikuluan ezarritako haztapen-zerrendari dagokionez, eteteak interes publikoari edo hirugarrenei eragingo liekeen kaltearen eta errekurritutako egintzen berehalako eraginkortasunaren ondorioz errekurtsogileari eragingo litzaiokeen kaltearen artean, adierazi behar da egin nahi den eteteak, lehenik eta behin, kalte larria eragingo liokeela interes orokorrari; izan ere, Administrazio Publikoak bere plantilletako destino hutsak betetzeko duen betearazpen-ahalmenari eragingo lioke, eta, bigarrenik, hautaketa-prozesuko izangaiei eragingo litzaieke ez dutelako aukerarik esleitutako destinoa betetzeko, eta kalte horiek larriagotzat jotzen dira errekurtsogileak alegatutako bidegabekeriarekin alderatuta.

ERABAKIA: Administrazio Kontseiluak aho batez onartzen du aurkeztutako erabaki-proposamena.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 30a.



Izpta.- Maiteder Mielgo Rubio

Idazkaria



Izpta.- Alberto Martínez Ruiz

Kontseiluburua

Osasun Sailburua

O.E.